

6 ANDRAMAXAK • Ondarroa



**Jaixak
ondo pasa!!**

Nasa kalea, 3
© 94 683 22 35
ONDARROA

ANAITASUNA TABERNA

- Borroka eta antolakuntza
- Preso eta errefuxiatuak etxera

ERRIBERA, 9



B ERAIKUNTZAK
OSTOK, S.L.

Kaminalde, 7 behea • Tel.: 94 683 25 42 • 48700 ONDARROA

TXURRUKA

ILEAPAINDEGIA

Erribera, 18

ONDARROA

DIETETIK ETA ERREGIMENKO ELIKATURA BEREZIAK

NEREA ETXEA

Erribera, 9
Tel.: 94 683 26 78 - Etxekoa: 94 683 10 82

ONDARROA

DANBALA MODAK

**OINETAKO KONPONKETA
APAINGARRIAK AUKERAN**

Nasa kalea, 5
Nasa kalea, 1
Tel.: 94 683 02 53
Tel.: 94 683 21 28

ONDARROA



AUTOS MUTRIKU S.L.

CITROËN

Zerbitzu Ofiziala
Tel.: 943 60 31 00 • Faxe: 943 60 44 17
Mijoa Industrialdea, z/g • MUTRIKU (Gipuzkoa)

Zubi Zahar

HERRI IKASTOLA
ONDARROA

**"Zeuk, zure zerbitzura
egiten duzun Ikastola"**

Ibai ondo kalea, 15
Tel.: 94 683 14 16


Arrain



Kontserbak

HERMANOS ECHEVARRIA IDOETA S.A.

ONDARROA-BIZKAIA © 94 683 19 60/04 47 - Faxe: 94 683 31 06



HEGALUZZEA



Artelanez karrozak egin ohi zituen jaietarako, 80ko hamarkadan.

ALAZNE ARTETXE

Buruhandiak eta erraldoiak kalez kale

Artelan Kultur Elkartearen eskutik kale animazioa ugaria izango da

Erraldoiak, buruhandiak, herensugea eta hankapaluak izango dira, Artelan Kultur Elkarteak antolatuta. Talde horrek hainbat urte daramatza kale animazioaren arloan lanean. Hala, Euskal Herri osoan ezagunak dira Artelanez egindako erraldoiak, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz eta beste hainbat tokitan izan ohi baitira.

Artelan Kultur Elkartea orain dela 23 urte inguru sortu zen. Hasieran batez ere eskulanak lantzen zituzten. Esaterako, txotxongiloak, ehunak, zeramika, egur taila, pintura eta abar egin zituzten. Artelanez bakoitzak nahi duena landu izan du, eta gustukoa ikasi izan du.

1983an Lekeition Ibilaldia egin zen. Artelanez kide Bitxore Lakak dioenez, «hasieran gure artelanez erakusketa egitea eskatu ziguten. Guk karroza batzuk egitea pentsatu genuen, eta antzinako eskola faxistei buruzko 12 karroza egin genituen. Gainera, 10 erraldoi egitea pentsatu genuen. Ez betikoak, bai zik eta ezberdinak». Hala, ikasle bakoitzak erraldoiaren buru bat egin eta erraldoiak egiteari ekin zioten. Lehenak eskaioz egin zituzten eta pisu handia hartu zuten. Guztiak erabat ezberdinak ziren.

Lakak gogoratu duenez, «le-

BITXORE LAKA

Artelan Kultur Elkartearen kidea

«Latxanbrek hildakoak ere animatzeko gaitasuna zuen»

hen erraldoia ez zegoen natural eginda, eta erraldoiaren burua harantz eta honantz zebilen. Armazoa burdinazkoa zen». Bakarik astebete falta zen Lekeition Ibilaldia joateko, eta erraldoien arropa guztiak eta eginda zituzten, baina erraldoien buruak gaizki zeuden. Berriro erreminteriara joan eta soportea batzuk jarri zizkieten.

Hurrengo urratsa erraldoien pisua arintzea izan zen, gazteagoak ere eraman ahal izateko. Hala, aluminiozko egitura egin zizkieten erraldoiei. Diru ugari gastatu zuten, baina, zapalak zirenez, okertu egiten ziren. Beraz, ez zuten balio. Azkenik, ostera berriak egin zituzten, 20 erraldoi: bakoitzak 10 mila pezeta inguru balio zuen.

Orduko hartan, aluminiozko hodiekin egin zituzten, eta askoz ere arinagoak ziren. Kontuan izan behar da erraldoiak gora eta beheara ibiltzen direla;

beraz, esfortzu handia egin behar da, eta ezin daitezke lurrean zutik utzi. Herensugea ere garai hartakoa da. Venezia diskoteka-ko eserleku guztiak aldatu zituzten, eta bertan apar ugari soberratu zen. Handik aparra ekarri eta lortu zuten beste oihal batekin herensugea egin zuten. Oihalak izugarritzko pisua zenez, geroago oihal txinatarra erosi zuten, arin-arina.

Jailetako ekitaldiak

Herensugea eta buruhandiak gaur eguerdiko 12etan izango dira kalez kale jaiei alaitzeko, Artelan Kultur Elkartearen eskutik. Abuztuaren 15ean, Andra Mari Egunean Erraldoiak eta Buruhandiak izango dira arratsaldeko 19:00etan. Azkenik, abuztuaren 17an, Arrantzale Egunean, Hankapaluak kalez kale izango dira eguerdiko 12:30ean.

Jailetako pertsonaia zen Josu Etxaburu *Latxanbre* ezin ahaztu dezakegu. Aurten haren izena daukan plaza bat inauguratu dute Astillerun. Sarreran Bitxore Lakak egindako plaka dago. 1978an, Kresala Arte Eskolan zebilela, Kortxeleko mamuak haragi eta hezurrez jantzi eta bizia eman zien, Andra Mari jailetako protagonistak izan zitezten. Leokadiri ahotza emateaz ere bera arduratzen zen: barreak, irrintziak eta negarrak batera egitearen estiloa berak ezarri zion. Bitxore Lakak dioenez, «niretzat animatzaile handi bat izan da, hildakoak ere animatzeko gaitasuna zuena».